

ORDENANTZA FISKALA, IBIGAILUAK ESPALOIETAN BARNA SARTU ETA  
ATERATZEKO ETA EREMU PUBLIKOA APARKALEKU ESCLUSIBORAKO,  
IBILGAILUEN GERALEKUETARAKO EDO EDOZEIN MOTATAKO SALGAIEN  
ZAMALANETARAKO ERRESERBATZEKO TASAK ARAUTZEN DITUENA

Oinarria

1. artikulua. Honako tasa hau martxoaren 2ko 4/1999 Foru Legearen 100.4 artikuluari jarraikiz ezarri da, haren bidez aldatu baitzen Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea, tasa eta prezio publikoen gaitan.

Zergagaia

2. art. 1. Ordenantza honetako zergagaia hau da:

a) Eraikin eta orubeetan trakzio mekanikoa duten ibilgailuak espaloietan barna (berezko pasabideak edo ibilgailuendako sarbideak) sartzea.

b) Ereku publikoa aparkaleku eksklusiborako erreserbatzea.

c) Erabilera publikoko bide eta lurretan lekuak erreserbatzea, enpresa edo partikularren zerbitzuko ibilgailuak uzteko.

d) Ereku publikoetan lekuak erreserbatzea bidaiariendako zerbitzu erregular edo berezien abiaburuko, erdiko eta helmugako geralekuak izan ditzaten.

e) Bide eta lur publikoetan lekuak erreserbatzea, salgaien zamalanetarako, hala eskatzen badute entitateek, enpresek edo partikularrek.

f) Lekuak erreserbatzea erabilera ezberdinetarako, noizean behinkako premiak direla eta.

2. Ordenantza honetako tasagagatik likidatzen diren eskubideak aparte daude obra lizentziaren tasaren gaineko ordenantzari, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergari eta bateragarriak diren bertzelako ordainarazpenei jarraikiz ordaindu behar direnetatik.

3. art. Definizioak, ordenantza honi doakionean:

Pasabidea: espaloien egituraren eta haren zintarriaren aldakuntza da, ibilgailuak aurreko eraikinean sartu edo handik atera ahal daitezen, bertzetarako ez.

Pasabideak ordutegi iraunkorrekoak (24 ordu, egunero) nahiz Udalak mugatutakoak izan daitezke. Bi kasuetan debeku izanen da haren aitzinean aparkatzea, baita pasabidearen titularrarenak diren ibilgailuendako ere, kontzesioak aipatzen den denboran.

Pasabide guztiek, ordutegi iraunkor nahiz mugatukoak izan, ezaugarriak edo disko-seinaleak izanen dituzte. Haien erdua Udalak emanen du, eta xedea izanen dute

ibilgailuak aparkatzea galaraztea berariaz seinalatutako aldean. Beraz, disko-seinaleak udal bulegoetan jasotzen ahalko dira.

Ibilgailuen sarbideak: espaloiaren eta haren zintarriaren aldakuntza da, ibilgailuak aurreko eraikinean edo orubean sartu edo bertatik atera ahal daitezen, bertzetarako ez. Ez dira seinalatzen ahal, zeren eta toki jakin horietan, beren kokaeragatik, ez baita posible edo debeku baita aipatu eraikinetara sartzea galarazten ahal duten ibilgailuak aparkatzea.

4. art. 1. Arestiko 2.1 artikuluan agertutako kontzeptuengatik, honako hauek daude ordaintzera beharturik:

a) Udal lizentzien titular diren pertsona fisiko edo juridikoak, nahiz nortasun juridikorik gabeko subjektuak.

b) Aipatutako pertsona horiek berak, araututako aprobeixamenduak egiten badituzte, nahiz eta hartarako behar den lizentziarik ez izan.

2. Ordainketa lizentziaren titularren edo titularren bizkar izanen da beti.

Karga-oinarriak

5. art. Honakoak dira karga-oinarriak:

a) Pasabide edo ibilgailuen sarbideen luzera, metro linealetan neurtua, eta, harekin batean, pasabidea edo ibilgailuen sarbidea non paratuko den, karrika horrexen kategoria (mailakatuak badaude).

b) Erreserbatutako lekuak dituen metro linealak.

6. art. 1. Aplikatu beharreko tarifak eranskinean agertzen dira eta indarra izanen dute harik eta Udalak aldatu arte.

2. Ordutegi mugatuko pasabideen tarifak hamabi orduko baimen-aldiari dagozkio.

Tributu-kuota

7. art. 1. Kuota aterako da karga-oinarriari dagozkion tarifak aplikatuz.

2. Ordutegi mugatuko pasabideak badira, Udalaren erabakian zenbat ordutarako baimena ematen den, horren arabera kalkulatu da kuota.

Tasaren sortzapena eta dirubilketa

8. art. 1. Tasa sortuko da Udalak baimena ematen duenean lehen aldiz.

2. Gero, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean izanen da haren sortzapena.

9. art. 1. Sortutako tasaren zenbatekoa ez da murrizten ahal.

2. Salbuespen gisa, lehen baimenari dagokion lehenbiziko kuotaren zenbatekoa hiruhileko naturaletan hainbanatuko da, baimena zein hiruhilekotan ematen den, hura barne.

3. Urtarrilaren 1ean zergadunen erroldan agertzen den partikular batek bere eskubideak zabaltzeko eskaria egiten badu, kuota kalkulatzeko arau hauei segituko zaie:

a) Urtarrilaren 1ean indarra duen baimenagatik, eta bertze kontzesio bat ematen zaion arte, sortu izanen da iragandako edo hasitako hiruhilekoei dagokien kuota.

b) Gainerako hiruhilekoengatik, tasaren sortzapena baimen berriari dagozkion tarifen arabera izanen da.

Salbuespenak eta hobariak

10. art. Tasa honetatik salbuetsirik daude Estatuko, probintziako edo udalerriko ibilgailu ofizialendako baizik erabiltzen ez diren pasabideak edo erreserbak, baita ongintzan edo giza laguntzan ari diren erakundeen ibilgailuei dagozkienak ere.

Kudeaketa arauak

11. art. 1. Ordenantza honetan arautzen diren lizentzia guztien kontzesioa hautazkoa izanen da beti, prekarioan eta hirugarrenei kalte egin gabe. Hortaz, ez baitu titularrarendako eskubide subjektiborik sortzen, titular horrek egindakoa kendu eta espaloia lehengoratu beharko du, bere kontura, Udalak horretarako errekerimendua egiten badio edo, betiere, edozein arrazoirengatik baja ematen badiote.

2. (Ezeztatua).

3. Eskatzaileak 13. artikuluan aipatzen diren betebeharrak guztiak betetzen ez baditu ere, bere jarduera edo lanbiderako baimena behar duela frogatzen badu, Udalak pasabiderako lizentzia ematen ahal dio.

4. Ordutegi mugatuko pasabideen kontzesioetarako baimenak emanen dira etenik gabeko hamabi orduko denbora- tarte baterako, edo baturik hamabi ordu egiten duten bi denbora-tartetarako, eta denbora-tarte horiek disko- seinaletan beharko dira adierazi.

12. art. Kuotaren zenbatekoa edo haren zati proportzionala interesatuari itzuliko zaio, betiere, hari leporatzen ahal ez zaizkion arrazoiengatik aprobetxamendua ematetik gelditzen bada.

13. art. Pasabiderako lizentzia eskuratzeko, nahitaezkoa da:

1. Gau eta eguneko pasabidea bada, eraikinek guttienez 50 metro karratuko azalera erabilgarria izatea.

2. Ordutegi mugatuko pasabidea bada, eraikinek guttienez 25 metro karratuko azalera erabilgarria izatea.

3. Eskatzen den pasabide mota edozein dela, baimena lortzeko interesa dutenek behar dute:

a) Eskatzailea pertsona fisikoa bada, egiazki bizi beharko du pasabidea erabiltzeko eskubidea ematen duen etxebizitza batean, edo, bertzela, merkataritzako nahiz industriako lokalaz ari bagara, eskatzaileak sartua egon beharko du Jarduera Ekonomikoen Zergarako erroldan.

b) Pertsona juridikoek frogatu beharko dute pasabiderako eskubidea ematen duen lokala sartua dagoela Jarduera Ekonomikoen Zergarako erroldan.

14. art. Honelakoetan ez da pasabiderako lizentziarik emanen:

a) Ibilgailuek berdegune bat zeharkatu behar dutenean.

b) Ibilgailuek oinezkoendako alde bat edo hamar metro luze baino gehiagoko espaloia zeharkatu behar dutenean.

c) Espaloia gaineratik zeharka pasatu behar denean.

15. art. Pasabiderako lizentziaren eskabidearekin batera, agiri hauek aurkeztuko dira:

a) Eskatzailearen aitorpena, lokala merkataritza edo industriarako jardueraren baterako ote den.

b) Lokalaren planoak, haren azalera erabilgarria zehazturik.

c) Lokalean zenbat ibilgailu altxatuko diren, haien matrikulen eta titularren zehaztapena.

d) Lokala merkataritza edo industriarako bada, eta bost ibilgailu baino gehiago bertan altxatzeko, lokala irekitzeko lizentzia, jarduera sailkatuaren espedientea aurretik tramitatuta, beharrezkoa bada.

16. art. Eremu publikoa zamalanetarako aparkalekua izateko erreserbatu nahi dutenek aprobetxamenduaren nondik norainokoa eta zertarakoa zehaztuko dituzte beren eskabidean, eta nahitaezkoa izanen da horrekin batean 15. artikularen b) atalean aipatzen den planoak ere aurkeztea.

17. art. Titulartasun aldaketek berriz ere lizentzia eman beharra dakarte, eta, beraz, ordenantza honek aurreikusten dituen izapideak eta baldintzak bete beharko dira horretarako.

18. art. Kaleak eta eraikinak mota desberdinetakoak direnez gero, Ordenantza honetan ez dira zehazten eraikuntza aldetik pasabideek izan behar dituzten ezaugarriak, eta kasu bakoitzean jarraiki beharko zaie Udalaren determinazioei, zeinak etortzen ahalko baitira osoko bilkuran hartutako erabakitik edo alkateak emandako ebazpenetik, baina betiere udal arkitektoak bere aholkua eman ondotik. Pasabideen eta ibilgailuentzako sarbideen luzera ere kasuz kasu erabakiko da, kalearen edo eraikinaren ezaugarriak kontuan harturik.

19. art. Pasabide edo ibilgailuen sarbidearen titularrak, nahitaez, eginbehar hauek izanen ditu:

- a) Pasabide edo ibilgailuen sarbidea eta disko-seinaleak ongi zaintzea.
- b) Zintarria pintatzea, Udalak eskatzen duen bakoitzean eta erabakitzen den kolorean.
- c) Udalak agintzen dizkion ohiko eta ohiz kanpoko lan guztiak pasabide edo ibilgailuen sarbidean egitea.
- d) Espaloia lehengoratzea Udalak eskatzen dionean eta aprobetxamendua uzten duenean.
- e) Udalak onesten duen ereduaren araberako disko- seinaleak paratzea, zeren ezin izanen baita aprobetxamendua erabiltzen hasi haiek paratu aitzinetik.
- f) Aprobetxamendua amaitzen denean disko-seinaleak kentzea.

20. art. Borondatezko dirubilketarako ezarritako epea iragaten bada tasa ordaindu gabe, galdu egingen da aprobetxamendurako eskubidea. Eskubide hori berreskuratzeko, justifikatu beharko da ordaindu direla printzipala eta berandutzagatik metatu diren errekarquak.

Arau-hauste eta zehapenak

21. art. Arau-hauste larritzat hartuko dira:

- a) Ordenantza honetan arautzen diren aprobetxamenduetariko bat egitea, behar den udal lizentziarik gabe.
- b) Aprobetxamenduari jarraipena ematea lizentziaren epea iraungi ondoan.
- c) Eremu publikoko edo jabari publikoko lurretako lurzorua okupatzea baimenak finkaturiko mugak gaindituz.
- d) Udalak ofizialdu ez bezalako disko-seinaleak edo ezaugarriak paratzea.

#### XEDAPEN GEHIGARRIA

Bakarra.-Ordenantzak indarra hartu ondotik, debekaturik egonen da eremu publikotik eraikinetara edo orubeetara ibilgailuak sartzea, baldin eta horretarako behin-behineko edo aldi baterako muntadurak erabiltzen badira, hala nola elementu mugikorak, arrapalak, oholak, etab., behar bezala justifikatu eta Udalak baimendutako kasuetan izan ezik.

#### AZKEN XEDAPENAK

Lehenbizikoa.-Ordenantza honetan aurreikusten ez den orotan, Udal honek onetsitako Ordenantza Fiskal Orokorrean xedatutakoari jarraituko zaio.

Bigarrena.-Ordenantza honek 2001eko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra, zerga ondorioetarako, baina pasabideetarako lizentziek lehenago ere balio izaten ahalko dute.

Hirugarrena.-Ordenantza hau Ezkabarteko Udalaren jurisdikzio osoan aplikatuko da.

#### TARIFAK:

A) Espaloietan barna ibilgailuak sartu eta ateratzea:

1. Gau eta eguneko pasabideak:

Garajeak, 5 plaza bitarte, metro lineal eta urte bakoitzeko, karrika guztietan: 3.000 pezeta.

Garajeak, 6-10 plaza, metro lineal eta urte bakoitzeko, karrika guztietan: 5.000 pezeta.

Garajeak, 10 plazatik goiti, metro lineal eta urte bakoitzeko, karrika guztietan: 8.000 pezeta.

2. Ordutegi mugatuko pasabideak:

Aplikatuko da 1. puntuko taula, % 25 merkeago.

3. Ibilgailuen sarbideak:

Aplikatuko da 1. puntuko taula, % 75 merkeago.

B) Eremu publikoa aparkaleku eskusiborako erreserbatzea:

1. Bidaiariendako zerbitzu erregular edo berezien abiaburuko, erdiko eta helmugako geralekuetako aparkaleku eskusiboa, galtzadaren metro lineal edo haren zatiki bakoitzeko, karrika guztietan: 3.000 pezeta urteko.

2. Noizbehinkako beharrak direla eta gertatzen diren erabilera desberdinetarako, galtzadaren metro lineal bakoitzeko, karrika guztietan: 1.000 pezeta eguneko.

Argitara ematen da, orok jakin dezan.

Ezkabarten, bi mila eta bateko otsailaren bostean. Alkatea, Felix Idoate Munarriz.